



ALBOAN

www.alboan.org

Gizarte-mugimenduak eta herritarren parte-hartzea



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

■ Esperientziak ALBOAN

...

5. Nazioarteko boluntarioritza:
topaketa baterako gakoak. (2007)
6. El desarrollo alternativo por el que trabajamos.
Aprendizajes desde la experiencia. (2011)
7. Parte-hartzea, gizartea eta demokrazia. (2015)
8. Badauka generorik partaidetzak? Oztopoak hausten
emakumeen partaidetzan. (2015)
9. Partaidetza-prozesuak, gizarte zibiletik eta herri
administrazioetatik. Peruko kasua. (2015)
10. Gizarte-mugimenduak eta herritarrenparte-hartzea. (2015)

Gizarte-mugimenduak eta herritarren parte-hartzea



Argitaratzailea:

ALBOAN

Aita Lojendio kalea 2, 2.
48008 Bilbao
Tel.: 944 151 135

Barañain etorbidea, 2
31011 Iruñea
Tel.: 948 231 302

Andia, 3
20004 Donostia
Tel.: 943 275 173

Estenaga Apezpikua, 1
01002 Vitoria-Gasteiz
Tel.: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org

Data: Ekaina 2015

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.

Inprimatzailea: Lankopi S.A.

ISBN: 978-84-942-938-7

Lege-gordailua: BI-1995-2015

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, baldin eta helburu komertzialik ez badu eta jatorria aipatzen bada.

Sarrera	5
Demokrazia eta gizarte mugimenduak: ordezkartzaren krisia eta aurrerabideak	7
<i>Javier Arellano Yanguas</i>	
Ordezkaritza bidezko demokraziaren krisia	9
Ordezkapen bidezko demokraziaren krisia Espainiako testuinguruan	12
Gizarte mugimenduen eragin politikoari buruzko zenbait ideia	14
Gizarte mugimenduen bilakaera azken hamarraldian	16
Gure ingurunean sortu berriak diren gizarte mugimenduak	17
15-M mugimenduaren bilakaera	21
Ondorioak eta aurrera egiteko balia daitezkeen ildoak	23
Erreferentziak	26
Gizarte-mugimenduak, herritarren parte-hartzea eta erakunde publikoak, posible al da integrazioa? Peruren kasua	29
<i>Marisa Glave Remy</i>	
Gizarte-mugimenduak edo gizarte-eragileak mugimenduan, Perun	29
Zer gertatu da Perun gizarte-mugimenduetan? Mugimendu nagusiak	31
Alderdi politikoen sistema	32
Gizarte-gatazkak Perun	33

Zer eragin izan dute protesta horiek guztiek?	35
Beste eragile edo hiri mugimendu batzuk	36
Posible al da gizarte-mugimenduei balioko dieten parte-hartze moduak imajinatzea?	37

2008an lehertu zen krisi ekonomiko eta sozialak krisi politiko sakona ere ekarri du. Espainiako Estatuko hainbat plazatan, “Ez gaituzte ordezkatzeko” zioten oihuak entzun ziren, eta horiek isla izan zuten geroago beste zenbait herrialdetan. Bertako herritarrak kalera atera ziren, euren beharrak eta arazoak kontuan hartzen ez dituen sistema batekiko gaitzespena erakusteko. Aldi berean, azken urteotan, hainbat erakunde publiko herritarren partaidetza handiagoaren alde agertu dira, herritarren eta administrazio publikoen arteko topaketa eta bateratzea lortzeko asmoz. Nola gerta daiteke paradoxa hori?

ALBOAN erakundea luzarotik dabil herritarren partaidetzaren gaia lantzen. 2007. urtean, lehenengo ikerketa argitaratu genuen; bertan, partaidetzaren oinarriak ezarri genituen, eta Hegoaldeko hainbat erakunde kideren esperientziak Euskal Herrian egindako beste esperientzia batzuekin elkartu genituen. Protagonistak eraikitzen dituen eta pertsonen, taldeen eta erakundeen gaitasunak indartzen dituen partaidetzaren aldeko apustua egiten dugu. Pertsonak zerbitzuen onuradun gisa antzematen dituen ikuspegi utilitarista gainditzen duen partaidetzaren aldeko apustua egiten dugu, euren burua eta ingurua garatzeko eragile diren herritarren protagonismoa sustatzen duen partaidetzaren aldekoa. Modu horretan, partaidetzako prozesuek herritarrentzako oinarritzako prestakuntzarako eskola gisa jarduten dute, eta gerora sortuko diren aldaketa pertsonal eta kolektiboen oinarria dira.

Baina partaidetzak ez du herritartasuna eraikitzen soilik; demokrazia zimendatu ere zimendatzen du. Hegoaldeko hainbat herrialdetan, neurri handi batean herritarren partaidetzako esperientziei esker, bertako sistema demokratiko ahulak indartu dira. Zenbait kasutan, politika publikoak hobetu eta giza garapenerako emaitzak lortu ahal izan dira. Horretarako, beharrezkoa da uste oker hau apurtzea: pobrezia egoeran dauden pertsonak izaki pasiboak,

hartzaileak eta garapen politiken onuradunak direlako ideia, alegia. Partaidetza sustatzeak herritarrekiko ikuspegia aldatzea dakar, eta partaidetza-prozesu orok herritartasuna eraikitzeke eduki behar duen izaera sustatu behar da; aukerak lortzeko eta askatasuna baliatzeko baldintzak sortzea dakar horrek.

Herritarren partaidetzako erronka handiak bi ardatzen inguruan biltzen dira: bata, nola inplikatu gizartea interes komunak zehazteko; bestea, zein espazio eta alorretan hartu behar diren erabakiak. Erakunde publikoek gizartearen eta horien talde antolatuen interesak ulertzeko duten modua ere beste alderdi garrantzitsu bat da, bezerotzan eta erakundeen edo horien liderren kooptazioan erori gabe. Partaidetzarako espazioak sustatzeak alderdi publiko, sozial eta politikoetan interesa duen gizartea eraikitzeke bidean jarri behar gaitu. Interes hori lagungarria izan daiteke gizarte zibileko talde formalentzat eta herritarrentzat oro har, Estatuarekin eztabaidatzeko eta negoziatzeko baldintzak eraikitzeke. Baldintza horiek herritarren ondasun komuna eta ongizate orokorra lortzera bideratu behar dira, eta, horretarako, ezinbestekoa da herritarrek protagonismoa hartzea, euren bizitzan eragiten duten gaien inguruko erabakiak hartzeko orduan.

Koaderno honetan, herritartasun izaeraren eraikuntzan eta aldaketa politikoen sorkuntzan gizarte-mugimenduek hartutako zereginaren inguruan hausnartzen dugu. Horretarako, Perun eta Euskal Herrian egindako bi esperientzia ditugu, bi gizarte-ikertzaile ezagunen eskutik.

Demokrazia eta gizarte mugimenduak: ordezkartzaren krisia eta aurrerabideak

Javier Arellano Yanguas.

Etika Aplikatuko Zentroa - Deustuko Unibertsitatea

Ezetz, ezetz, ez gaituztela ordezkatzan! Hori izan zen 15-M mugimenduaren mobilizazioetan gehien entzun zen leloa. 2001. urteko maiatzean, milaka eta milaka pertsona kalera irten eta Espainiako hainbat hiritako plazak hartu zituzten, hainbat astez. Sistema politikoaren funtzionamendu txarra izan zen haien kexuen mamia, eta bereziki hautetsiek eta erakunde demokratikoez herritar gehien interesak ordezkatzeko duten ezintasuna¹. Mobilizazio haiek onespen maila handia izan zuten iritzi publikoaren aldetik, eta nabarmen gelditu zen gizartean oso zabaldurik dagoela haserre hori².

Herritarrak erakundeen eta politikarien aurrean gero eta haserreago daudela azaltzeaz gainera, 15M mugimenduaren mobilizazioek boladan jarri zuten, berriro ere, gizarte mugimenduek (GM) betetzen duten zereginaren inguruko gaia. Parte-hartzaile askok eta zenbait iruzkingilek 15-M iraultza bat zela defendatu zuten *-the Spanish Revolution-*, eta orobat adierazi zuten Espainiako politikaren iraganaren eta geroaren arteko mugarrria izan zela (Público, 2011; Taibo et al., 2011). Haien arabera, 15Mko mobilizazioek, dinamika inklusibo eta parte-hartzaileen bitartez, politika egiteko modu berri bat erabili zuten, erakundeen funtzionamendua aldatuko zuena, azken batean. Gainera, kaleko herri mobilizazioak aldaketa soziala sortzeko tresna pribilegiatua zirela nabarmendu zen berriro ere, azken

-
- 1 “¡Democracia Real Ya!” taldeak, ordu arte ia ezezaguna zenak, manifestu baten bitartez ekin zion ezusteko mobilizazio hari. Manifestu hartan, besteak beste eskatzen zen Hauteskunde Legearen erreforma, botereen benetako bereizketa, alderdi politikoen barneko demokratizazioa, klase politikoaren pribilegioak ezabatzea eta herritarrek zuzeneko partaidetza edukitzea politikan, erreferendum lotesleen bitartez (P. Velasco, 2011).
 - 2 Ikerketa Soziologikoen Zentroak 2011n argitaratutako barometroaren arabera, 15 M mugimendurekin gertatutakoaren jarraipena egin zuten herritarren artean % 70,3k haien balorazio positiboa zuen, eta, aldiz, % 12,7k negatiboa. Beste ikerketa soziologiko batzuk ere antzeko joera erakusten zuten.

hamarraldietan zeregin hori bete zuten erakundeen (sindikatuak, GKEak, etab.) paralisiaren -kooptazioa askotan- aurrez aurre.

Zenbateraino bete dira edo, gutxienez, betetzeko bidean daude iragarpen horiek? Zehazki, zenbateraino eta zer mekanismoren bitartez lagun dezakete gizarte mugimenduek gure erakundeen kalitate demokratikoan sakontzen eta ordezkaritzaren krisia gainditzen? Galdera horiei erantzuteko, bost urrats hauei jarraitzen dien azterketa egin dut: (i) ordezkaritzaren bidezko demokraziaren krisiaren azterketa laburra; (ii) Espainiaren testuinguruan aztertzen dut ordezkaritzaren bidezko demokraziaren krisia, gure sistema politikoaren osagai espezifikoak identifikatzeko; (iii) hainbat herrialderen azterketa konparatiboetatik ondorioztatzen diren gizarte mugimenduen eragin politikoari buruzko zenbait osagai azaltzen ditut; (iv) azken urteotan gure ingurunean gizarte mugimenduen hainbat dinamika azaltzen ditut; eta, azkenik, (v) hainbat ondorio kritiko biltzen ditut, eta ausartzen naiz, halaber, hainbat aurrerabide proposatzera, gizarte zibilak demokrazia inklusiboago baten osaeran parte hartze handiagoa izan dezan.

Ateratako ondorio orokorrenak aurreratuko ditut hemen, eta asmoa dut azterketa honetan zehar horiek labur azaltzeko:

- (i) Ordezkaritzaren krisia dago demokrazia sakontzeko eta hobetzeko historian zehar sortutako prozesuen oinarrian. Azken hamarraldietan bestelako bideak ere hartu dira demokrazian sakontzeko helburuarekin. Alde batetik, erabakiak hartzeko prozesuan herritarrek modu aktiboagoan parte hartzeko metodoak bultzatzen ari dira. Beste alde batetik, kontuak emateko prozesuak hobetzeko ahalegina egiten ari da (bertikalak zein horizontalak). Bi bideak elkarren osagarri izan litezke edo kontraesanezko dinamiketara eramanez gaitzakete.
- (ii) Garrantzi handikoa da herrialdeen testuingurua. Erakundeak diseinatzeko eta funtzionatzeko moduak zerikusia du horiek sortu direneko egoera historikoarekin. Era horretara, Espainiako erakunde politikoaren legimitatearen krisiak berezko osagaiak ditu, eta lotura zuzena dute demokraziarako trantsizioan egin zen erakundearen diseinuarekin.
- (iii) Berrikuntza asmoak gorabehera, azken lau hamarraldietan jarraitasun handia dago mendebaldeko herrialdeetan gizarte mugimenduek lantzen dituzten gaiak eta egindako proposamenei dagokienez. Proposamen horiek, oro har, gizarte “alternatibo” bat sortu nahi dute. Gizarte alternatibo

horiek gizarte bizitzaren hainbat alderditan eragin badute ere, ez dute eragin mugatzailea eduki erakunde demokratikoen oinarrizko diseinuan.

- (iv) 15Mko mobilizazioek komunikabideetan izandako eragina handia izan bada ere, oso mugatua da gizarte mugimenduen pisua Espainian. 15M mugimenduak berak eragindako bulkadak bi norabide hartu ditu. Alde batetik, murrizketen eta egokitzeko politiken kontrako protesta agerraldiak. Eta bestetik, mobilizatu direnetako batzuk aurretik zeuden gizarte mugimenduetan sartu dira, alterglobalizatzaileetan bereziki. 15M mugimenduaren mobilizazioetatik sortutako taldeek, bi urteren ondoren, indarra galdu zutela bazirudien ere, haien jardueraren ondorioz sortu da Podemos alderdia eta Espainiako paisaia politikoa astindu duten ekimen politikoak agertu dira.
- (v) Hainbat ikaskuntza ateratzen dira azken urteotako prozesuetatik: gizarte zibilak dagokion erantzukizuna bere gain hartu eta aurrera egin behar du. Gardentasunaren eremuan beste leku batzuetan baino gutxiago aurreratu dugu.

Ordezkaritza bidezko demokraziaren krisia

Azken hamarraldietan gero eta atsekabe handiagoa dago ordezkari bidezko demokrazien funtzionamenduari dagokionez. Aldian aldiko hauteskundeetan oinarritutako demokrazia horietan, herritarrek txartel huts batean erantsi behar dituzte beren interesak, lehentasunak, kezkak eta gobernatzeko moduari buruzko sinesteak, eta alderdi baten edo hautesle baten esku uzten dute beraiei dagokien botere parte, txartel horren bitartez. Eredu horren arabera, goreneko unea dira hauteskundeak askotan, gobernuan parte hartzeko herritarren aukera huts bat baino gehiago. Baina herritarrek hauteskundeetan duten partaidetzak behera egin du ordezkari bidezko demokrazia askotan, eta eredu berrikusteko premiaren frogatzat hartzen da partaidetzaren beheraldi hori, hura inklusiboago egin eta hauteskundeetatik ateratzen diren gobernuen ekintza legitimatzeko (Cornwall, 2002).

Erakunde politikoak berrikusi eta inklusiboagoak bihurtzeko prozesua normalizat hartu beharko litzateke. Herritarrek gai publikoetan parte hartzeko duten eskubidea beste sektore batzuetara zabaltzeko ahaleginari sektore pribilegiatuek garai historiko bakoitzean jarritako eragozpenak gaitzetzaren historia

izan da demokraziaren historia. Argumentu ohikoenek zerikusia izan dute sektore horien kudeatzeko ezintasunarekin, beste batzuekiko mendeko diren edo erantzukizun, ezagutza edo kontzientzia politikorik ez duten kontuan hartuta (O'Donnell, 2007, 17. or.).

Botere politikoa dutenen oztopo horiek gainditzeko, sistema demokratikoen erai-kuntzarekin batera pertsonaren autonomia, arrazionaltasuna eta erantzunkizuna aitortzen dituen ikuspegi moral bat agertu izan da historian zehar. Edonola ere, kontzientzia subjektibo horretatik zenbait eskubide ahalbidetu eta bermatuko dituen erakunde eta lege esparruetara iristeko prozesua ez da prozesu automatiko bat. Edonola ere, hainbat talderen presioaren, iraultzen, errepresioaren eta abarren bitartez gertatu da, askotan, prozesu hori. Beraz, pentsatzekoa da demokrazian sakontzeko prozesua ez dela, gaur egun ere, prozesu automatikoa izango, eta boterean daudenek ez diotela horretan eskuzabaltasunez “utziko”; beren burua baztertua ikusten duten taldeek konkistatu beharko dute, nolabait. Espero dezagun historiak lagunduko digula indarkeria eta trauma gutxiagorekin aurrera egiten.

Parte hartzea sustatzea izan da inklusio demokratikoan sakontzeko estrategia-rik ohikoa. Estrategia horren sustatzaileen artean bi ikuspegi mota bereizten dira. Lehenengoaren arabera, herritarren zuzeneko partaidetza da ordezkartza bidezko demokrazia gainditzeko modua, haren muga guztiekin. Eredu guztiz berri bat izango litzateke. Bigarren ikuspegiak ez du ordezkartza bidezko demokrazia erabat baztertu nahi; aitzitik, hura hobetu nahi du. Ordezkaritzak ondo funtzionatzeko, ezinbesteko baldintzatzat ikusten da partaidetza. Beraz, parte hartzeko mekanismoen bitartez botere hautetsiek herritarrei kontuak agertzeko prozesuak hobetzea proposatzen du. Ikuspegi batean zein bestean, aurrez aurre daude hautetsiez osatutako demokraziaren eredia eta partaidetza. Edonola ere, aurrerago aztertuko dudanez, GMek lehenengo ikuspegi alternatiboa gailentzeko joera dute, *statu quotik* aldentzen dena alegia; bigarren ikuspegiarekin bat egin ohi dute, al-diz, erakundeen erreforma logika gradual bati jarraituz lortu nahi duten taldeek.

Partaidetzaren sustapenak demokrazia deliberatzaile deituaren garapena eragin du, zeinetan herritarrek modu aktiboan parte hartzen duten erabakiak hartzeko prozesuan. Deliberazio bidezko parte hartzeak hiru abantaila ditu. Alde bate-tik, herritarrak gehiago lotzen zaie prozesu politikoei; era horretara, legitimoa-goak bihurtzen dira horiek eta sendotu egiten da herriak demokraziarekin duen konpromisoa. Beste alde batetik, deliberazioak aukera ematen du erakunde de-

mokratikoak gehiago kontrolatzeko eta lege eta politika publiko eraginkorrakoak eta testuinguruari egokituagoak osatzeko (Glenn, 2003, 18. or.). Azkenik, herritarren parte hartzeak lagun dezake erakundeak zurruntzen eta mugatzen, eta, horrela, erakunde sarea bera erreformatzeko mugimenduak sortzen dira.

Parte hartzea sustatzeko esperientziak ez dira eztabaida ezinak demokraziaren kalitatea hobetzeko duten eraginkortasunari dagokionez. Hainbat egilek gutxienez hiru zailtasun mota identifikatzen dituzte: (i) parte hartzen duten subjektuei lotuak; (ii) parte hartzearen bide instituzionalekin zerikusia dutenak; (iii) testuinguruarekin zerikusia dutenak.

Lehenengo zailtasunak zerikusia du parte hartzen duten subjektuekin. Ideializatu egiten da, nolabait, herritarrek gai publiko ugariri buruz gogoeta egiteko gaitasun, denbora eta energia nahikoa dutela onartzen duen partaidetza eta delibrazioa. Praktikan, ezinezkoa da herritarren gehiengoa parte hartze prozesu instituzionalizatueta inplikatzeko. Zailtasun hori gaingartzeko, kontuan hartu behar da badaudela beste partaidetza sistema batzuk ere, jendeak etengabe erabili ohi dituenak boterea dutenengan eragiteko: protestak, aginpidearen aurreko erresistentzia pasiboa, etab. (Remy & Asencios, 2007; Scott, 1985).

Partaidetza antolatzeko moduarekin du zerikusia bigarren zailtasunak. Zenbait egilek bereizi egiten dituzte eremu “gonbidatuak” eta eremu “asmatuak” (edo “konkistatuak”). Boterea dutenek partaidetza errazteko martxan jarri ohi dituzten mekanismoak dira lehenak. Bigarrenak, aldiz, erakundeen ordezkarien parte hartzea arriskuan jartzea lortzen duten herritar sektoreek proposatutako partaidetza mekanismoak dira. Hainbat azterketa daude agerian jartzen dutenak eremu gonbidatuek, askotan, desmobilizatzeko joera dutela (Cornwall, 2002), horien kudeaketaren arduradunek gaitasun kritikorik gabe uzteko joera dutelako agendetan landu beharreko gaiak finkatzen dituztenean, talde eta pertsona gonbidatu motengatik eta parte hartzearen dinamikagatik (Lukes, 2005). Era horretara, demokrazian benetan sakondu nahi bada, parte hartzeko prozesu instituzionalizatuaren barruan espazioak sortu behar dira parte hartzaileek deliberazioaren bitartez beren parte hartze arauak “asmatu” edo aldatzeko aukera izan dezaten. Esperientziaren arabera, hori ez da gertatzen baldin eta gizarte zibilak ez baditu aldi berean bere espazioak sortzen, bere baitako taldeen bitartez.

Azkenik, agerian gelditzen ari da optimistegia dela pentsatzea parte hartzeak, beste faktore batzuk alde batera utzita, demokrazia sakontzeko erakundeen

erreformak katalizatu ditzakeenik. Alderantziz, ebidentzia enpirikoek erakusten dute herrialde baten testuinguru instituzionalak eta ekonomia politikoak garrantziko pisua dutela parte hartzearen kantitatea eta kalitatea zehazteko orduan, eta baita eraldatzeko gaitasunari dagokionez ere (Avritzer, 2009; Houtzager, 2003). Nolabaiteko arrakasta izan duten esperientziek ere, esaterako Porto Alegreko aurrekontu parte hartzaileek, zailtasun handiak topatu dituzte beste leku batzuetara eraman nahi izan direnean, testuinguruaren desberdintasunak kontuan hartu gabe.

Ondorioz, herritarren parte hartzea demokrazian sakontzeko bide promisorioenetzat hartzen da, bai “ordezkapen” modua gainditzeko bai hura hobetzeko, herritarren aurrean erantzutera behartzen baititu ordezkariak. Hala ere, partaidetza sustatzea pentsatu ohi dena baino konplexuagoa da. Puntu horretan garrantzitsuena da ulertzea parte hartzearen eraginkortasuna loturik dagoela parte hartze hori gertatzen den erakundeen mekanismoei eta testuinguru politiko zabalenei.

Ordezkapen bidezko demokraziaren krisia Espainiako testuinguruan

Historia demokratiko laburreko herrialdea da Espainia, eta, orain dela gutxi arte, eskasak izan dira demokraziari egindako kritika “demokratikoak”. Francoren diktaduraren ondoren, biztanleriak oro har ondo hartu zuen demokraziaren ezarpena. Talde txiki batzuen gaitzespenak alde batera utzita, erakunde berriek onespren maila handia izan zuten herritarren aldetik, eta horretan iraun du orain dela gutxi arte. Gainera, kritika gehienek ez zuten zerikusirik ordezkapen bidezko demokraziaren formarekin, baizik eta horien lurralde oinarriarekin (nazionalismo euskalduna, katalana eta galegoa) edo estatuaren formarekin (errepublika vs monarkia parlamentarioa).

Azken urteotan, herritarrek gero eta atsekabe handiagoa dute demokraziaren funtzionamendua dela eta. Atsekabe horrek lotura du, noski, krisi ekonomikoarekin. Herritarren ustez, kargu hautetsiek, hau da, beren izenean boterea dutenek, dute gaur egungo egoeraren erantzukizuna, maila handi batean. Nonahi agertzen dira ustelkeria, nepotismoa eta gehiegizko xahutzea oinarri duten kasuak. Nire ustez, herritarrek diagnostiko egokia egiten dute krisiaren larritasuna politikaren eremuan kokatzen dutenean. Edonola ere, politikarien “etika” pertsonalean jartzen dute arreta kritika gehienek, eta ez erakunde demokratikoen diseinuan. Hurrengo paragrafoetan defendatzen dut, etika pertsonalaz haratago, demokra-

ziarako trantsizio prozesuaren testuinguruak baldintzatu zuela erakundeen diseinua, eta diseinu hori dela, hain zuzen ere, hautetsiek herritarrei konturik eman behar ez izanaren arduradun nagusia.

Trantsizioaren garaian zalantza handiak zeuden demokratizazio prozesuaren bideragarritasunari dagokionez. Erregimen frankistatik zetozen eragile erreformistek eta klandestinitatean bizirik iraun zuten alderdietako goi karguek diseinatu zuten elite politikoen kontsentsuan oinarritutako trantsizioa (Linz, 1990). Horretarako, saiatu ziren sistemari egonkortasuna ematen, eta indartu egin zuten alderdi politikoen zeregina, zehazki, alderdi horietako goi karguena. Eta estrategiak, epe laburrean, bideragarri egin zuen trantsizioa eta egonkortasuna ekarri zuen. Hala ere, horren ondorio negatiboetako batzuk jasaten ari gara orain.

Hautetsien zerrenda itxiak eta barne demokraziaren defizitak botere instituzionalera iristeko tresna bihurtu dituzte alderdi politikoak, gehiengo duten alderdiak bereziki. Alderdietako goi karguak kooptazio bidez iristen dira, eta hautetsien zerrendak, *de facto* hauteskundeetara iristeko aukera ematen dutenak, liderren leialtasunaren arabera osatzen dira. Era horretara, ez da harritzekoa balio handiagoa ematea komunikazio kabineteek diseinatutako esloganak behin eta berriro errepikatzeak gaitasunari berezko ideiak edukitzeari baino. Hainbat ondorio ditu horrek guztiak: analisiak pobretu egin dira, herritarrei kontu gutxiago ematen zaie, erakundeetako tarteko maila asko kaskarrak dira, eta parlamentuak garrantzi txikia du, botoen aritmetikatik haratago.

Alderdietako goi mailen botereak eta kontrolerako mekanismo eraginkorrik ezak gehiegikeriak eragin ditu, eta distortsionatu egin da erakunde publikoen funtzionamendua. Zoritxarrez, 1998-2008 hamarraldiko oparoaldiaren ondorioz, gizarte zibilaren baitako hainbat organizazio kooptatu eta isildu egin ziren, diru laguntzen politika oparoaren bitartez. Organizazio horietako askok balio handiko jarduerak egin zituzten gizartean; edonola ere, aurrekontu publikoen mendekotasunak murriztu egin zuen finantzatzen zituzten administrazioak kontrolatzeko arreta. Eta hori posible izan zen gure erakunde sozial gehienek lehentasuna eman diotelako, beren misioaren barruan, gizarte zerbitzuez hornitzeari eta ez parte hartze demokratikoaren sustapenari eta herritarren kontrolerako kulturaren sustapenari. Beraz, egia bada ere ustelkeria kasu asko eta askotan erantzukizuna pertsonala izan dela, egia da, halaber, erakundeen diseinuak eta gizartearen ardurarik ezak -erakundeen kontrolari dagokionez- zerikusi handia dutela eremu publikoa kudeatzeko gaitasun ezarekin eta arintasunarekin.

Gizarte mugimenduen eragin politikoari buruzko zenbait ideia

Gizarte mugimendu berriak 70eko hamarraldiaz geroztik

Aurreko mendearen 70eko hamarraldiaz geroztik “gizarte mugimendu berriak” (GMB) deiturikoak sortu ziren. Ordu arte politika instituzionalizatuaren jokotik kanpo zeuden arloak politizatzea izan zen talde horien lehenengo eragina: genero harremanak, sexuaren askapena, hiri mugimenduak, kontsumitzaileen elkarteak, ingurumenaren babesa, talde etniko minoritarioen babesa, etab. Offek (1987) 8oko hamarraldiko GMBei buruz egindako azterketak ekarriko ditut atal honetara. Urte horietako azterketatara itzultzeko interesak badu oinarria, hain zuzen ere, ikustea zenbateko jarraitasun maila dagoen GMB haien eta gizarte mugimendu berrienen artean.

GMBak oso-oso politikoak dira, gizarte osoari eragiten dioten arauak eta erakundeak aldatzea delako beren asmoa. Eta horrek bereizten ditu, hain zuzen ere, mugimendu batean parte hartzen duten pertsonen jokabidean eragin nahi duten mugimendu soziokulturaletatik. Hala ere, GMBak ez zetozen bat politika egiteko modu tradizionalekin, ez gaiei dagokionez (aurretik esan bezala) ez beren ekintza moduen bi dimentsio hauei dagokionez: subjektu kolektibo bat osatzeko pertsonak koordinatzeko modua eta beren aurkari politikoei aurre egiteko modua.

Koordinazioaren ikuspuntutik, gizarte mugimenduak sorreratik beretik bereizten dira informalak direlako, egoera bakoitzera egokitzeko gaitasuna dutelako eta horizontaltasunerako joera dutelako. Beste era batera esateko, GMBek helburuak dituzte, kideak hartzeko arauak eta nolabaiteko egitura administratiboa; baina GMBen bereizgarri nagusia da parte hartzaileak, kanpainak, sareak, bozeramaileak eta boluntarioak dituztela. GMBak, oro har, bereizketa maila txikia dute maila horizontalean (parte hartzaileen eta parte hartzen ez dutenen artean) zein maila bertikalean (liderren eta oinarriaren artean).

Aurkarien aurrean duten jokabidearen ikuspegitik, GMBek baliabide ez konbentzionalak baliatzen dituzte, hala nola manifestazioak eta beste protesta modu batzuk. Presentzia publiko modu horren bidez bideratzen diren eskakizunak era negatiboan adierazi ohi dira: *...ri ez, ... inoiz ez, debekatuta...*, *...gehiago ez*. Adierazpen modu negatibo horrek elkartzeko aukera ematen die eskakizun horrekin bat datozen taldeei eta pertsoneri, nahiz eta beste gai batzuetan ikuspegi bere-

koak izan ez (Tarrow, 1998). GMBen jarduteko moduak, halaber, gailendu egiten du negoziatzekoak ez diren usteen eta balioen defentsa. Antolamendu egitura oso ahuleko taldeak kohesionatu behar direla uste delako gertatzen da hori aldez, baina baita kohesionatzea premiazkoa dela uste delako ere. Edonola ere, “printzipio” horiek direla eta, GMBek beren aurkariekiko harremanetan oso nabarmen markatzen dituzte aldeak, eta binomio elkarren kontrakoak eta bateraezina osatzen dituzte (gu eta haiek, desiragarria eta eramangaitza, orain edo inoiz ez), eta saihestu egiten dituzte kontzesioak edo mailaz mailako aurrerapenak eragingo dituzten negoziazioak (Offe, 1987, 71. or.). Logika mota horrek erantzun suharrak eragin ohi ditu eragile politiko tradizionalen aldetik, zentzugabeak, ez-gauzak eta arduragabeak direla leporatuz.

Eskakizunen edukiei dagokienez, GMBek zalantzan jartzen dute politika tradizionalak defendatutako gizarte idealaren oinarrian dagoen aurrerabidearen ikuspegia. Alderantziz, era horretako garapena geldiaraztea da haien helburua, suntsitu egiten dituztelako bai natura bai identitate kolektiboak. Beraz, erresistentziako mugimenduak dira, eta ez dute goitik behera diseinatu eta amaituta dagoen etorkizuneko proiektu baten premia.

GMBen lehenengo erronka bizirik irautea da. Definizioz, GMBen informaltasun maila handia da, eta iraupena urria. Erakunde instituzionalizatuak ez bezala, beren inguruan gauzak gertatzea behar dute GMBek, mobilizazioei eusteko eta ekintzaileen artean energia sortzeko. Horregatik, ohikoa da zenbait gai edo arazok gizartearen adierazpen argirik ez dutenean, GMBek beren jarduera murriztea. Gainera, GMBen antolamendu egitura ahulak zailtasunak gehiago eragiten dizkio bizirik iraun ahal izateko, zehazki bi zailtasun gehiago. Batetik, lidergoak karismatikoak izan ohi dira, askotan boluntarioak eta autoizendapenetan oinarrituak; horren guztiaren ondorioz, etengabe jartzen da zalantzan horien legitimitatea. Bestetik, ez dagoenez prozedura jakinik desadostasuna kudeatzeko, bi irtenbide daude hori gertatzen denean: guztien adostasuna lortu edo berezi.

Bizirik irauteko zailtasun horiek gorabehera, GMBek arrakastak ere izan dituzte, hiru motatakoak. Lehenengo arrakasta mota *kanpainaren arrakasta* da, zeinaren bitartez elite politikoek onartu egiten dituzten mugimenduek defendatutako zenbait eskakizun: esate baterako, azpiegitura baten eraikuntza gelditzea edo lege jakin bat onartzea. Bigarren mota *prozedurazko arrakasta* da, zeinaren bitartez erabakiak hartzeko hainbat mekanismo txertatzen diren erakundeetan, GMBek defendatuak. Horrela gertatzen da, esate baterako, herri kontsultetan

edo parte hartzeko beste modu batzuk onartzen direnean. Azkenik, gizarte mugimendu jakin batek lortzen duen *arrakasta politikoa* dago, haren aurkariek mugimenduaren legitimitatea onartzen dutenean eta hainbat eragile politiko tradizionalen artean (alderdiak, sindikatuak, komunikabideak, etab.) aliatuak lortzen dituztenean, azken horiek beren programetan mugimenduaren eskakizunak erants ditzaten.

Gizarte mugimenduen bilakaera azken hamarraldian

Azken hamarraldian hainbat egilek diagnostikatu dute premia-premiazkoa dela gizarte mugimendu mota berri bat sortzea, gai izango dena, komunikazioaren teknologia berrien erabileraren bitartez, tokiko mugimenduak eta mobilizazio orokorrak modu eraginkorrean bateratzeko. XXI. mendeko gizarte mugimendu horiek XX. mendeko beren kideek baino gaitasun handiago edukiko lukete eragiteko, herrietan diharduten erakundeen artean lotura handiagoa dagoelako, nazioarteko erakunde eta korporazioetan eragiteko aukera dutelako protesten bitartez eta beren eskaerak eta jarduerak zabaltzeko gaitasun handiagoa dutelako. Egile horientzat, teknologiaren eraginez aldatzen ari da gizarte mugimenduen beren izaera (Castells, 2012).

Aldaketa teknologikoak gizartea mobilizatzeko moduan eragiten ari dira, zalan-tzarik gabe, baina, hala ere, beste egile batzuek erlatibizatu egiten dute eragin horren indarra eta norabidea. Alde batetik, zenbait ikerlarik azpimarratzen dute interneten eragina anbigua dela eta frogari eskaintzen dituzte adierazteko nola erabil litekeen sarea arabiar herrialdeen demokratizatzeko ahaleginak indargabetzeko edo giza eskubideen aldeko aktibistak kontrolatzeko Txinan (Morozov, 2012). Tillyk, gizarte mugimenduen teorilari handietako bat izanik, zalantzan jar-tzen ditu ustezko berrikuntza horietako batzuk (2003, 4. or.):

- (i) Determinismo teknologikoa saihestu behar da. Gizarte mugimenduen ezaugarri gehienak beren ingurune sozial eta politikoaren ondorio dira, aldaketa teknologikoen ondorio baino gehiago.
- (ii) XIX. eta XX. mendeetan gertatu bezala, berrikuntza teknologikoen beti jarduten dute bi norabidetan: alde batetik, dagoeneko elkarri lotuta dauden aktibisten arteko komunikazioa errazten dute; baina, beste alde batetik, bazterrean uzten dituzte, baita modu erradikalagoan ere, teknologia berrietara ezin iritsi direnak.

- (iii) XXI. mendeko gizarte mugimendu gehienak herri, eskualde edo nazio mailan egituratzen dira oraindik ere. Era horretara, nazioartekotzearen garrantzia hasi berri-berria da.
- (iv) Globalizazioaren eraginez aldatzen ari da gizarte mugimenduen banaketa geografikoa, eta hainbat herrialdetara zabaltzen ari dira; hala ere, joera globalizatzaileen eta alter-globalizatzaileen arteko borrokek gizarte mugimenduen alorra menderatzen duten frogarik ez dago. Mobilizazio eta protesta gehienek tokiko eremuari dagozkien helburuak dituzte oraindik ere.

Gure ingurunean sortu berriak diren gizarte mugimenduak

2011n, 15M mugimendua sortu zenean, berritu egin zen gizarte mugimenduen ganako interesa gure ingurunean. Atal honetan, mobilizazioaren lehenengo hila-beteen zenbait ondorio sistematizatzen ditut lehenik, eta, ondoren, azken urtean izan duen bilakaerari buruzko zenbait ohar eta gogoeta azaltzen ditut. Erakunde eta antolamendu politikoentzako erronketan jartzen dut hemen arreta guztia.

15-M mugimenduarekin batera sortutako erronkak³

Argi badago ere gehiegizkoa dela 15-M mugimendua iraultza batekin parekatzea, egia da haren ondoriozko mobilizazioen eta gizartean izan zuten oihartzunaren ondorioz hainbat gai bihurtzen zirela eztabaida publikoaren xede, hain zuzen ere erakunde politikoei, gizarte mugimenduei eta, oro har, herritarrek auzi publikoetan duten parte hartzeari buruzkoak. Eztabaida horietako batzuk zuzen-zuzenean 15-M mugimenduaren protesta eta eskakizun esplizituen bitartez piztu dira; beste batzuk, berriz, jarduteko mekanismoen bitartez piztu dira, zeharkako bideetatik.

1) *Erakunde politikoei buruz*

Agiri honen hasieran aipatu bezala, 15-M mugimenduak erakutsi zuen biztanleria-
ren parte bat atsekabaturik zegoela hauteskunde prozesu bidezko ordezkari-
tza sistema demokratikoaren funtzionamenduarekin. Agerikoa da kri-
si ekonomikoa eta hark enpleguan izan dituen ondorioak eta zerbitzu publikoen
murrizketak funtsezko faktoreak izan direla atsekabe hori azaltzeko. Hala ere,

3 Jatorria: Arellano Yanguas, Basterretxea & de la Cruz (2012).

hutsegitea izango litzateke pentsatzea atsekabea testuinguru ekonomikoaren emaitza baino ez dela. Kriaren ondorioz azaleratu egin dira urte askoan isilean sortzen aritu diren eta gure ingurunean adierazpen publiko garrantzitsua izan ez duten desilusio eta politikaren gutxiespen prozesuak. Garrantzizko zeregina betetzen ari diren osagaien artean honakoak dira aipatzekoak:

- (i) Erakunde publikoak eta, hedaduraz, estatuaren aparatuen parterik handiena herritarren interes orokorrak ordezkatzeko gai ez diren ustea. Arrazoietakoa bat izango litzateke ordezkari politikoen eta botere ekonomikoen (finantzarioak bereziki) arteko konplizitatea, azken horien interesak babesteko sortua (D. Velasco, 2011). Biztanleriak susmoa du bai alderdi politikoek bai erakunde publikoetan karguak dituzten pertsonen uko egiten diotela interes publikoari eta horren ordeztaila pribatuak jasotzen dituztela. WikiLeaks-ek ezagutzera emandako agiriek, zeinetan gobernuak korporazio pribatu handien interesen babesle gisa agertzen diren, indartu egin zuten uste hori. Are gehiago, 15-M mobilizazioak gai horri buruzko leloez beterik egon ziren.
- (ii) Alderdi politikoek beraiei dagozkien ustelkeria kasuei buruz erabakiak hartzeko ardurarik ezak ere garrantzizko eragina du erakunde politikoen deslegitimazioan. Hauteskunde zerrendetatik ustelkeria kasuetan nahastuta zeuden hautetsiak kentzea izan zen 15-M mugimenduak bere gain hartu zuen DRYaren proposamen nagusietako bat.
- (iii) Azken urteotan pertsonen eguneroko bizimoduari eragiten dioten gai nagusiei buruzko eztabaida publikorik eza. Biztanleriaren parte baten ustez, alderdietako goi karguek epe laburrean abantaila politikoak lortzeko finkatzen dituzte funtsezko gaiei buruzko posizioak, eta erabakiak hartzeko zeregina politikari talde txiki baten arteko gerrillari gerra batera murrizten da. Gainera, politikak ikerketa sozialak babestutako oinarri enpirikorik gabe definitzeko joera dago, eta horren ondorioz, herritarrak ez dira politikariek eta politikaz fio irtenbide “teknikoak” eskatzeko orduan.

Egoera horren aurrean, gobernuak nolabaiteko ekimenak jarri beharko lituzke abian, are gehiago kontuan hartuta oso litekeena dela tirabirak larritzea, krisi ekonomikoaren iraupenaren eta horretatik ateratzeko hautatutako irteeraren ondorioz. Erakunde politikoak berriro ere legitimatzeko, beharrezkoak dira aipatutako arazoak neutralizatuko dituzten ekintzak:

- (i) Beharrezkoa da gardentasuna sustatuko duten erreformak bideratzea, bai herritarrak erakundeen kudeaketa publikoari buruzko datuetara iristeko bideei dagokionez bai erabakiak hartzeko prozedurei dagokienez.
- (ii) Botere politikoek interes ekonomikoen aurrean autonomia handiago izan dezaten finkatzea eta hori horrela dela erakustea. Ekonomiaren garapenerako beharrezkoa bada ere estatuaren eta enpresen arteko lankidetzatza (Evans, 1996), lankidetzatza hori ez bada beharrezko babesekin, kontrol sozialarekin eta kontuak emateko prozedurekin egiten, publikoak pribatuaren aurrean duen mendekotasunaren pertzepzioak higatu egiten du Estatuaren legitimitatea, halako eran non hondatu egiten den lankidetzaren ondorioz lortutako edozein abantaila. Horretarako lagungarria izango litzateke gardentasun eta kontrol handiagoa egotea alderdi politikoaren finantzaketari dagokionez, eta baita agintariek enpresekin dituzten harremanei dagokienez ere. Eta lagungarriak lirateke, orobat, hainbat gizarte eragile kontuan hartzeko politikak aurrera eramateko prozesuak.
- (iii) Estatuaren ezintasunari buruzko diskurtsoa aldatzea. Politikariek, beren erabakiak justifikatzeko, ezinbestekoak direla aipatu ohi dute askotan. Merkatuek, komunitateko bazkideek edo ingurunearen liskarrak behartuta hartzen dira. Argumentu mota horiek elikatzen dute Estatu indargabearen mitoa (Weiss, 2002), eta horrek, luzera, higatu egiten du estatuaren eta ordezkariatza bidezko sistemaren legitimitatea: Zertarako behar dugu ordezkariatza bidezko sistema bat, baldin eta beste leku batean hartzen badira guregan eragina duten erabakiak? Ez al litzateke nahikoa izango “ezinbesteko” politikak aplikatuko dituzten teknikariek? Era horretako argumentuek bultzatzen dute irteerak politikaz kanpo bilatzera.

2) *Gizarte mugimenduei buruz*

15-M mobilizazioak gizarte mugimenduei buruz ere esaten digu zer edo zer. XX. mendearen lehenengo partean, sindikatuek kapitalaren eta lanaren arteko banaketa sozial tradizionalaren inguruan jardun zuten, eta banaketa horren aurrean alternatiboak/osagarriak ziren gatazka sozialeko (*cleavages* ingelesez) ardatzen inguruan sortu ziren gizarte mugimendu “berri” deituak -feminismoa, ekologismoa, pazifismoa, giza eskubideak, nazioarteko solidaritatea-. Aurretik azaldu bezala, 15-M mugimenduaren sorrerak nahasturik utzi zituen mugimendu haiek, ordurako ez hain “berriak”. Alde batetik ez zeuden eroso, ez zelako kontuan hartzen 15-M mugimenduak -bakuntasun, ezjakintasun eta lotsagabekeria nahasketa

batez- bere gain hartzen zituen gaien inguruan haiek hainbat urtez egindako lana. Beste alde batetik, txunditurik zeuden mugimendu berriaren mobilizazio gaitasunarekin, beraiek ez baitzuten halakorik lortu. Parte hartzaileen ikuspegietatik zein gizarte mugimenduetako jendearekin edukitako harramenen azterketatik hainbat ondorio ateratzen dira, baina oinarri enpirikoko baieztapenak baino gehiago aztertzeko hipotesiak dira:

- (i) 15-M mugimenduan parte hartu zuten zenbaitek aipatu zuten gehiegizko ortodoxiak kendu egiten ziela gizarte mugimenduetan parte hartzeko go-goa. Horien ustez, talde horietara hurbilduz gero, berenganatu egin beharko lukete haien diskurtso ideologikoa, eta ez zuten beren iritziak eta ikuspegiak adierazteko askatasunik sentitzen. Gainera, 15-M mugimenduan izandako esperientzian oso aintzat hartzen zuten gauza kolektibo bat eraikitzen parte hartzeko izandako aukera. Zenbaitek zioten, halaber, lehenengo aldiz zerbait eraikitzen ari ziren sentipena zutela, aurretik finkatutako giturak onartu beharrik gabe.

Erakundeen funtzionamenduari eta gizarte prozesuei buruzko ikuspegi tolesgabe horretatik haratago, 15-M mugimenduari buruz jendeak zituen pertzepzioek aukera ematen diete gizarte mugimenduei beraiek parte hartze soziala sustatzeko baliatu izan dituzten jardunbideei eta estrategiei buruz gogoeta egiteko. Bazuten pentsatzea zenbateraino jarraitzen zuten eztabaidarako gune izaten, alderdi politikoek bezala, zenbateraino jarraitzen zuten jarrera irekia edukitzen hainbat ideia eta berrikuntzen aurrean, edo beren diskurtsoak eta jardunbideak zurrundurik gelditu ziren instituzionalizazio prozesuen ondorioz. Beste alde batetik, 15-M mugimenduak zer pentsatu ere ematen du emozioek eta sorkuntzak prozesu kolektiboen sorreran duten eraginari buruz (Jasper, 2007), eta horrek, aldi berean, alderdi ideologikoaren nagusitasuna berriro kokatzera eraman gaitzake.

- (ii) 15-M mugimenduak tentsio distributiboak ekintza kolektiboa giltzatzeko ardatz nagusi gisa birsortzearen hipotesia azaltzen du. Gizarte mugimendu “berriek” klase gatazkaren nagusitasuna erlatibizatu eta beste gizarte tentsio guztiak ikusgai bihurtu zituzten, eta litekeena da azken bi hamarraldietako gizarte aldaketek –hamarraldi horietan handitu egin dira gizarte desberdintasunak OCDEko ia herrialde guztietan– gizarte haustura horren garrantzia indartu izana politika antolatzeke orduan (OECD, 2011). 15-M mugimendua joera horren adierazpen sortu berria izan zitekeen eta nabarmen utziko lituzke egoera historiko berrietan sindikatuek langileen

interesen ordezkariak lana egiteko izan dituzten mugak, zeinetan kapitalak boterea irabazi duela ematen duen lanaren prekarizazioaren kontura (Diaz-Salazar, 2011).

3) Parte hartze politikoa

Azken urteetako galdetegi soziologiko ia gehienek aditzera ematen zuten desmobilizazio politikoaren prozesu iraunkor bat gertatzen ari zela, gazteen artean bereziki. 15-M mugimenduaren sorrerak, ordea, galdetegi horiek guztien kontrakoa adierazten du, itxuraz. Baina benetan existitzen al da kontraesan hori? Guk ezetz uste dugu. 15-M mugimendua politika egiteko modu bat da, politikaz mesfidati dena eta bere izaera politikoa ere ezkutatzen saiatzen dena. Mobilizazioetan elkarrizketatutako gehienek etengabe politikaz jarduten bazuten ere, deseroso sentitzen ziren izaera politikoko mugimendu batekin identifikatzen zitzaienean. Berehala saiatzen ziren uste horretatik urruntzen eta “baina” ugari jartzen zituzten: interesatzen zaigu politika baina ez gara “alderdizaleak”, baina ez gara “politikariak bezala”, etab. Baina erreakzio hori ez da harritzekoa. Izan ere, hamarraldi pare batez susmopean egon da politika, hainbat ikuspegitatik. Alde batetik, neoliberalismoa saiatu zen politika gatazkari eduki oro kentzen, eta saiatu zen, halaber, alderdi publikoaren kudeaketa tekniko hutsa bihurtzen, eraginkortasun ekonomikoaren printzipioen bitartez. Era askotako interesen, egiteko moduen, botere asimetrien eta abarren aipamen hutsa boladaz kanpoko politikarizat hartu eta baztertu egin zen. Herritar gehienak gustuko ez genuen errealtate baten ikusle zinikoak ginen, baina onartu egiten genuen, itxurazko ongizatearen truke. Testuinguru horretan sortu zen 15-M mugimendua eta haren baitako protestek ezin diete politikoa denaren susmo horri ihes egin. Haren baitan bildu ziren gaur egungo erakunde demokratikoak berritzearen aldekoak, zuzeneko partaidetza eta Estatuaren boterearen dezentralizazioa aldarrikatzen duten muturreko demokratak, autoerregulazioaren alde egiten duten libertarioak eta politikaren eremua murriztu eta teknikariei leku handiagoa eman behar zaiela uste duten neoliberalak. Hori bai, bat datoz denak Estatuak gizarte zerbitzuak defendatu eta finantzatu behar dituela. Anbigutasun hori erabakitzeke dago oraindik.

15-M mugimenduaren bilakaera

15-M mobilizazioekin batera hainbat galdera sortu ziren, eta denborak erantzun die: 15-M gizarte mugimendu bat izatera iritsiko al da? Alderdi politiko bat sortuko al da? Beste plataforma batzuetan sartuko al da? Denborarekin urtu egingo

al da? Gizarte sareetan jarraitzeko eta sendotzeko plataforma bat aurkituko al du? Perspektiba pixka bat gehiagorekin, eta, bildutako informazioan eta azken urteko bilakaeran oinarri hartuta, hainbat joera nabarmendu ditzakegu.

15-M mugimendua talde txiki batek sustatu zuen, Democracia Real Ya, interneten eta gizarte sareen bitartez, salatze erakunde politikoek, botere finantzarioen mende daudenez, ez dituztela gehiengoaren borondatea eta interesak ordezkatu. Protesta horrek gainditu egin zituen DRYren deialdiaren mugak, eta berehala eta antolamendu eskasarekin zabaldu zen. Mobilizazioek askotariko pertsona talde bat elkartu zuten; beren arteko desberdintasunak alde batera utzi eta bat egin zuten haserrean eta protestan. Emozioak eta sormenak garrantzizko zeregin bete zuten mobilizazioaren lehenengo etapan, ideien eta proposamenen multzo ondo definituak baino gehiago. 15-M mugimenduaren helburuei buruzko formula adostuetara iristeko ahaleginek zailtasun ugari eragin zituzten, eta azkenean hainbat agiri programatiko idatzi baziren ere, ez dirudi agiri horiek erreferentziazkotzat hartu zituztenik 15-M mugimenduaren ondoren mobilizatauta jarraitu zuten taldeek.

15-M mobilizazioaren izaera argitzeko prozesua parte-hartzaileen eguneroko erabakien bitartez egin da, baina batez ere zenbait taldek mobilizazioan irauteko egindako ahaleginen bitartez. Kontuan hartuta ez zegoela inolako antolamendu formalik 15-M mugimenduaren ondorengotza eta haren izena eta historia eskatzeko, normala dirudi mobilizazioarekin jarraitu zutenek “ondorengotzaren eskubidea” berenganatu izana, eta baita hari erantsitako legitimitatea ere. 15-M mugimendua dezentralizatu izan denez, “jarraikitutasunaren” bidezko aukeraketa prozesua heterogeneoa izan da eta asko aldatu da hiri batzuetatik besteetara.

Alde batetik, krisiaren ondoriozko arazo zehatzekin borrokatzen duten taldeek parte hartu dute, esaterako STOP Desahucios taldeak. Talde mota horiek gizarte arazo larri bat identifikatu eta legedia aldatzeko presioa egiten dute, eta horixe izan da horien meritua. 15-M mugimenduaren parte bat lanean ari da zenbait hiritan bizilagunen taldeak sortu eta auzoko arazoei logika parte-hartzaileen bitartez heltzeko. Azkenik, bada joera bat, beharbada nagusia gure ingurunean, ezker alterglobalizatzaile hurbildu dena. Bereiziki deshazkunde mugimenduetara hurbildu da, eta, oro har, joera post-desarrollistetara, zeinak adierazten duten gaur egungo eredu ekonomiko eta soziala gainditzeko *status quotik* bereizirik sortutako alternatibak behar direla. Planteamendu alterglobalizatzaile muturrekoek,

krisi ekonomikoaren testuinguru batean, nolabaiteko koherentzia ideologikoa eman diete talde horiei, eta baita haserrearen mugimenduak galbanizatzeko eta bateratzeko gaitasuna ere. Testuinguru horretan ulertu behar da Podemos-en bat-bateko agerpena, zeinak muturreko diskurtso baten bitartez aurka egiten dion *status quo*ari, elite politikoaren eta ekonomikoaren aurrez aurre. Podemosen hasierako proposamenek adierazten zuten trantsizio demokratikoaren ondoren sortutako sistema instituzional zaharra eraitsi behar zela eta erakunde berriak eraiki behar zirela hutsetik ia-ia. Hala ere, 2015eko udal hauteskundearen eta hauteskunde autonomikoaren ondoren izan dute parte hartze politikoaren eta hauteskunde orokorretarako aurreikuspen positiboaren ondorioz, arindu egin dituzte beren proposamenak eta doinu erreformista hartu dute, eta erakundearen funtzionamendua hobetzearen aldeko jarrera edukitzera igaro dira.

15-M mugimenduaren historiak erakusten du mobilizazio handi eta jendetsuek aktibatu eta sendotu egin zutela, une jakin batzuetan, ekintza kolektiborako ahalmena. Jendea kalera atera eta gero, mobilizazioak aldaketaren aldeko irrika eragin du gizarte mugimendu batzuetan, eta aldaketaren premia hori irudikatzen duen indar politiko bat artikulatzeko baliatu da. Horretarako, Podemosek eta bertako liderrek 15-M mugimenduaren bandera erabiltzen dute, eta, horrela, aniztasunaren irudia hartu dute eta estilo bakezale eta jai girokoari eutsi diote beren errebindikazioetan.

Ondorioak eta aurrera egiteko balia daitezkeen ildoak

Egindako ibilbidetik hainbat ondorio ateratzen ditut atal honetan, eta, aldi berean, zenbait gairi buruzko nire ikuspegia azaltzen dut; zenbait proposamen azaltzera ere ausartzen naiz.

Argi dago sistema demokratikoetan ordezkartzaren krisia dagoela. Baina hori ez da berria. Izan ere, historian zehar egin diren aurrerakuntza demokratikoak biztanleriaren sektore gero eta zabalagoen inklusio eskaeren ondorio izan dira. Une historiko honetan, demokrazia sufragio unibertsala egoteak definitzen duen garai honetan, arazoa beste bat da: nola bermatu ordezkari hautetsiek herritarrei erantzun eta kontuak emango dietela. Bi modu daude horri erantzuteko: herritarren zuzeneko partaidetza batetik, eta kontuak emateko mekanismoak hobetzea bestetik. Aurretik aipatu bezala, bi jarduera ildo horiek elkarren osagarriak edo aurrez aurrekoak izan litezke. Iruditzen zait askoz ere emankorragoa dela

ordezkaritzaren legitimitatea ordezen ahalegintzen ez den partaidetzaren ikuspegia, eta, horren orde, kontuak emateko prozedura hartuko duena ordezkari-tza sendotzeko bidetzat.

Ildo horretatik, gizarte mugimenduei leporatu diezaieke gizarte “alternatibo” bat eraikitzeko ahaleginean bere egin izana “dena edo ezer ez” ikuspegia eta erreformarako prozesuei uko egin izana. Jarrera horren oinarrian muturreko idealismo bat dago, zeinak aurkezten duen azken helburua -desiragarria eta jende askok partekatua- irisgarria den errealitate bat balitz bezala, ondo aztertu gabe gaur egungo egoera eta aurrera egiteko urratsen bideragarritasuna.


Garrantzizkoa da kontuan hartzea herrialdeen testuingurua erabakigarria dela kontuak emateko premia sustatzeko eta demokrazian sakontzeko orduan. Espainiaren testuinguruan, ordezkari-tzaren krisi orokorraz gainera, bertako historiaren berezko faktoreak topatzen ditugu. Alderdi politikoen goi-karguei emandako zentraltasunaren ondorioz, funtzionamendu oso ilunak sortu dira eta ahuldu egin dira kontuak emateko prozesuak. Sistema politiko gardenago bat sustatzea izango litzateke irtenbidea.

Proposamen praktiko batean aurrera egiteko, lehenik azalduko dut nola ulertzen ditudan nik kontuak emateko prozesua, gardentasuna eta horien arteko harremana. Botere publikoren bat duten pertsonen eta erakundeen beren boterea -estandar etiko eta eraginkortasuneko jakin batzuen arabera- gauzatzeko moduari buruz erantzuteko prozesua da nire ustez *kontuak ematea*. Kantsentsu zabala dago kontuak emateko prozesuak bi dimentsio dituela oinarri hartzen duen ustearen inguruan: (i) boterean daudenek informazioa emateko eta beren ekimenak modu sinesgarrian justifikatzeko betebeharra, eta (ii) gutxieneko estandar batzuen arabera erantzuten ez dutenak zigortzeko aukera (Gaventa & McGee, 2012, 13. or.).

Gainera, ohikoa da pentsatzea kontuak emateko bi modu daudela: *horizontala*, estatuko organoen edo erakundeen artekoa (esate baterako, kontuen auzitegiak egindako barne kontrola), eta *bertikala*, berriz, herritarren eta estatuaren artekoa (O'Donnell, 1998). Batak zein besteak azpimarratzen dute boterearen erabilerearen legitimazio soziala, erakunde publikoen dagokienez; baina bigarrenak lotura zuzena du *ethos* berriarekin, zeinaren arabera erakundeen kontrol sozial handiagoa eskatzen den, hori baita publikoa kudeatzeko hautatu diren pertsonen ordezkagaitasuna bermatzeko modua.

Gardentasunak, definizio oinarrikoenean, erakunde publikoen jarduera eta horien baitan botere moduren bat duten pertsonen jarduna herritarrei aztertzeke aukera ematen dien gobernu motari egiten dio erreferentzia, eta horretarako hainbat prozedura eta irizpide argi daude, era sistematikoan dokumentatuta daudenak eta informazio publikoa erraz eskuratzeko aukera ematen dutenak (Kim, Halligan, Cho, Oh, & Eikenberry, 2005, p. 649).

Modu sinplifikatuan, honako hau litzateke gardentasuna aipatu diren emaitza positiboekin lotzen dituen katea:



Gardentasun politikak benetan izan duten eraginari buruzko azken azterketek erakusten dute emaitza positiboak ez direla automatikoak. Gardentasunaren sustapenaren eta kontuak emateko prozesua hobetzearen arteko lotura funtsezko urratsa da, eta baita kate horretan zailena ere (Fox, 2007; Gaventa & McGee, 2012). Gardentasuna beharrezko baldintza bat da, baina ez da nahikoa. Garrantzizko beste baldintza batzuk ere badaude, bai erakunde publikoen jarduerari dagozkionak, bai kontuak eska ditzaketen gizarte taldeei dagozkienak (Bovens, 2007).

Erakundeen ikuspegitik, gardentasunak hainbat ezaugarri bete behar ditu: (i) sakontasuna; (ii) galdagarritasuna; (iii) eskuragarritasuna; eta (iv) erabiltzeko erraztasuna. Gainera, hainbat mekanismo behar dira erakundeetan jarduera ezegokiak eta ez-eraginkorrak zigortzeko. Beste alde batetik, gizarte taldeen ikuspegitik, beharrezkoa da datuak erabiltzeko, aztertzeko, informazio garrantzitsu bihurtzeko eta zabaltzeko gaitasuna eta borondatea edukitzea.

Zoritxarrez, ordea, gure inguruan ez dago boladan gardentasunaren gaia. Historia demokratiko handiagoko herrialde askotan ez bezala, gizarte zibila ez da

oso zorrotza izan gardentasun eskaerei dagokienez, eta ez da eskura dagoen informazioa aztertzeko moduan antolatu. Gardentasun handiagoa eta kontuak eskatzeko konpromiso handiagoa duen gizarte zibila izango litzateke erakunde demokratikoen ordezkagarritasunean sakontzen lagunduko lukeen partaidetza modu bat.

Erreferentziak

- Arellano Yanguas, J., Basterretxea, I., & de la Cruz, C. (2012). *15-M Bilbao: Estudio de dinámicas sociales en torno a las movilizaciones del 15-M en Bilbao*. Bilbao: Eusko Jaurlaritza.
- Avritzer, L. (2009). *Participatory institutions in democratic Brazil*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Castells, M. (2012). *Redes de indignación y esperanza*. Madril: Alianza Editorial.
- Cornwall, A. (2002). *Making spaces, changing places: situating participation in development*. Brighton: Institute of Development Studies.
- Evans, P. (1996). Government action, social capital and development: reviewing the evidence on synergy. *World Development*, 24(6), 1119-1132.
- Fox, J. (2007). The uncertain relationship between transparency and accountability. *Development in practice*, 17(4-5), 663-671.
- Gaventa, J., & McGee, R. (2012). Review of impact and effectiveness of transparency and accountability initiatives. Londres: Transparency & Accountability Initiative.
- Glenn, J. K. (2003). Contentious politics and democratization: comparing the impact of social movements on the fall of communism in Eastern Europe. *Political Studies*, 51(1), 103-120.
- Houtzager, P. (2003). Coalition building from below. In P. Houtzager & M. Moore (Eds.), *Changing paths: international development and the new politics of inclusion*. Ann Arbor: University of Michigan Press.
- Jasper, J. M. (2007). *The art of moral protest: culture, biography, and creativity in social movements*. Chicago: The University of Chicago Press.

- Kim, P. S., Halligan, J., Cho, N., Oh, C. H., & Eikenberry, A. M. (2005). Toward participatory and transparent governance: report on the sixth global forum on reinventing government. *Public Administration Review*, 65(6), 646-654.
- Linz, J. (1990). Transitions to democracy. *Washington Quarterly*, 13(3), 143-164.
- Lukes, S. (2005). *Power: a radical view*. Basingstoke: Palgrave Macmillan.
- Morozov, E. (2012). *El desengaño de internet: los mitos de la libertad en la red*. Barcelona: Ediciones Destino.
- O'Donnell, G. A. (1998). *Horizontal accountability and new polyarchies*. Notre Dame: University of Notre Dame.
- O'Donnell, G. A. (2007). *Dissonances: democratic critiques of democracy*. Notre Dame: Notre Dame University Press.
- OECD. (2011). *Divided we stand: why inequality keeps rising*. Paris: OECD Publishing.
- Offe, C. (1987). Challenging the Boundaries of Institutional Politics: Social Movements since the 1960s. In C. Maier (Ed.), *Challenging the Boundaries of the Political* (pp. 63-106). Cambridge: Cambridge University Press.
- Público. (2011, 26 Mayo). Cayo Lara: "Con el 15-M va a cambiar el curso de la historia" Retrieved 8 Diciembre, 2011, from <http://www.publico.es/espana/377067/cayo-lara-con-el-15-m-va-a-cambiar-el-curso-de-la-historia-elecciones2011>
- Remy, M. I., & Asencios, D. (2007). *La otra cara de la luna: participación conflictiva en sociedades rurales*.
- Scott, J. C. (1985). *Weapons of the weak: everyday forms of peasant resistance*. New Haven ; London: Yale University Press.
- Taibo, C., Antentas, J. M., Vivas, E., Mateo, J. P., Domènech, A., Giménez Chueca, I., & Monedero, J. C. (2011). *La rebelión de los indignados*. Madrid: Editorial Popular.
- Tarrow, S. (1998). *Power in movement: social movements and contentious politics* (2nd ed.). Cambridge: Cambridge University Press.

Tilly, C. (2003). *Social movements enter the twenty-first century*. Paper presented at the Contentious Politics and the Economic Opportunity Structure: Mediterranean Perspectives, Rethimno.

Velasco, D. (2011). La creciente deslegitimación de la política. *Iglesia Viva*(246), 7-28.

Velasco, P. (2011). *No nos representan: el manifiesto de los indignados en 25 propuestas*. Madrid: Planeta.

Weiss, L. (2002). *States in the Global economy*. Cambridge: Cambridge University Press.

Gizarte-mugimenduak, herritarren parte-hartzea eta erakunde publikoak, posible al da integrazioa?

Peruren kasua

Marisa Glave Remy.

Politikari perutarra, Limako Udal Metropolitarrako zinegotzi ohia

Gizarte-mugimenduak edo gizarte-eragileak mugimenduan, Perun

Perun nolabaiteko eztabaida sortu da gatazka berrien inguruan dagoena gizarte-mugimendua den edo ez, unean uneko edo lurraldeko logika haustea lortu duten, eta agenda nazionalera jauzi egin edo nolabaiteko sendotze mailak lortu dituzten (maila horiek aukera emango liekete agenda gaitasuneko eragile nazional gisa eratzten). Eztabaida biziko gaia da hori gizarte-zientzien alorrean; hori dela eta, txostena Peruko ekintza kolektiboan oinarrituko da, izan ere, eraldaketa prozesuetan ahalegintzen ari da eta, bertan, zenbait mekanismo instituzionalizatu dituzten talde sozialak dira protagonista (CEOP-ILO, CIPCA...).

Herritarren partaidetzarako mekanismoak, gobernu mailaren eta testuinguruaren arabera, politika publikoen hitzarmenekoak edo demokrazia zuzenagokoak izan daitezke. Azken horiek beste batzuk baino mugatuagoak dira. Alabaina, garrantzizkoa da adieraztea partaidetzarako eremu instituzionalizatuetan berriaz baztertzen direla eztabaida eta gatazka. Era horretara, ezarritako ordenaren, *status quo*aren, gainean egindako zalantzak ez dira partaidetzarako bide instituzional horietatik igarotzen. Era horretara, mugimenduan diren eragile horien ekintza kolektiboa, gizarte-mugimendu berri horiek, bide instituzionalizatuetatik igarotzen dira ia beti. Beraz, honako hauek dituzte ezaugarri nagusiak:

- Ez dute lotura oso formala ezarrita dagoenarekin edo instituzionalizatuarekin.
- Kongresuan ordezkari politikorik ez edukitzeko joera dute; horrek agenda nazionalago bat edukitzeko aukera emango lieke.
- Aliantza sendoak dituzte tokiko eragileekin (alkateak, eskualdeko presidentek...), baina horien agendak ezin dira eremu horietan eztabaidatu.

- Ekimen bakarra disruptiboa da; Estatuari, ordena ezarriari egiten zaion erronka.
- Arazo zehatz multzo bat deigarri izatea bilatzen dute; egunerokotasuna haustea bilatzen dute.
- Beste batzuekin solidaritateak edo aliantzak sortzen saiatzen dira, hori agenda publikoaren parte formala izan dadin.
- Kostu handikoak dira, bai denboran bai bizitzetan (pertsone asko hil dira protestaren kriminalizazio eta errepresio egoeratik).

Herritarren partaidetza Perun

Arrakasta eduki duela esan daiteke, herritarren partaidetzako legeak eta mekanismoak baitaude formalki ezarrita, eta hori horrela izan da partaidetza bultzatzen duten bi joera elkartu direlako:

1. Defizit demokratikoa konpontzeko logikatik abiatuta, jakitun izanik Estatuak mugak zituela eta demokrazia ahula zela, gobernagarritasuna eta gobernu eremuen legezkerotasuna hobetzea bilatzen zen, eta, horrela, boterea, baliabideak, berriro herritarren artean banatzea.
2. Ikuspegi teknokratiko edo neoliberalaren ikuspegitik, defizit ekonomiko eta sozialari buruz eztabaida egitea bilatzen da, zerbitzuen hornikuntzaren gaiari buruz edo pobreak ustez beraiei dagozkien gaietan parte hartzeari buruz.

Partaidetzarako mekanismoak:

- 3 Gobernu mailetan (nazionala, eskualdekoa eta tokian tokikoa), ekimen legegileak edukitzeko aukera dago, hau da, herritarrek sinadura kopuru bat biltzeko duten eskubidea politika publikoak aldatu ahal izateko, kongresuan edo eskualdeko edo udaleko gobernuetako erabaki eremuetan ekimen berriak aurkeztuz.
- Adostasun edo kontzertazio eremuak, gonbidapen bidez. (Hezkuntzaren Kontseilu Nazionala...).
- Eremu kontsultiboagoak. Eskualdez beheko gobernuetan edo toki gobernuetan bi mekanismo daude, legeak nahitaez ezartzen dituenak:

- Eskualde mailako adostasun kontseiluak.
- Udal mailako adostasun kontseiluak.

Gizarte zibilaren gune horiek edukitzera derrigortzen dira lurraldeak, zenbait politika kontsultatzeko, nahiz eta horrek gerora edukiko duen garrantzia borondate politikoaren arabera izan.

- Parte-hartzean oinarritutako aurrekontua. Biztanleriari aukera ematen dio baliabideen erabilerari buruz eztabaida egiteko.
- Agintariak atzera botatzea.

Zer gertatu da Perun gizarte-mugimenduetan? Mugimendu nagusiak

- Nekazarien oso mugimendu garrantzitsua. Nekazaritzaren erreforma handi bat egon zen, Latinoamerikako erradikalenetako bat. Horri esker, desagerrarazi egin zen latifundioa, eta lantzen duenari eman zitzaion lurra. Gaur egun, ez dute arestian izandako pisua.
- Langile mugimendu oso indartsua 70eko hamarkadaren amaieraz geroztik. Kalera irten ziren sindikatuen antolamenduari esker berreskuratu zen demokrazia, maila handi batean.
- Irakasleen mugimenduak garrantzi handia izan zuen arestian, bai eta gaur egun ere.
- Badira hainbat mugimendu berri, eduki zuzenagoekin eta honako kezka hauekin:
 - Lurraldetasuna.
 - Emakumea.
 - Osasuna.
 - Herritarren segurtasuna.
 - Auzotasuna edo hurbileneko ingurunea.
 - Baliabide eko-sistemikoak (lurra, ura...).
 - Nortasuna, kultura, hizkuntza.

Mugimendu tradizionalak 6oko hamarkadan izan zuten goraldia; mugimendu berriak, aldiz, globalizazioaren ondorio dira, baina Perun denbora gehiago behar izan zuten sortzeko. Zenbaiten ustez, horrek zerikusia du Fujimoriren diktaduran eredu neoliberalak txertatzeko moduarekin. 60eko hamarkadaren amaieran, berreskuratu egin zen demokrazia Perun, mobilizazio bizi bati esker, eta demokrazia berreskuratu ondoren, beste ahultasun eta arazo batzuk antzeman ziren herrialdean. Gizartea eta instituzionalizazioa ahuldurik zeuden, ordezkartzaren krisi batekin batera, eta oraindik ez da hartatik ateratzea lortu, gizarte-loturak hautsi direlako, eta horrek zerikusi handia du Fujimoriren diktadurarekin; alabaina, askoz haratago ere badoa, Peruko barneko gerrarekin zerikusia baitu. Egiaren eta adiskidetzearen Batzorde bat egon zen, eta bertan erakutsi ziren barneko gerran hil zen jendeari buruzko datuak: 70.000 pertsonatik gora. Barneko gerra horren ondorioz gizarte-lotura asko hautsi ziren, bai eta gizarte-ehuna ere, eta oraindik ez da hori berreskuratu. Fujimoriren bezeriak “herri sektoreekin” ezarri zuen harremana –bezeria logika baten arabera, eta ez eskubideen arabera–, demokrazia berreskuratzeko prozesua hausten ahalegindu zena, ezin izan zen beste harreman mota baten bitartez ordeztu, eta nolabaiteko hutsa sortu zen Estatu-Gizartea harremanean. Gizarte-mugimenduak (langileak, nekazariak, irakasleak...) oso ahul gelditu ziren, horren adibide garbia da gero eta jende gutxiago dagoela sindikatuetan Perun, nahiz eta lan-baldintzak gero eta okerragoak diren. Giltzadura txikia dago gizarte-mugimendu berrien artean. Estatu mailako ustelkeria oso handia da (Kongresuan, aurreko Gobernuaren ustezko ustelkeria ikertzen ari dira, are gehiago, Alan García presidentea kasu horietakoren batean nahasita dago).

Alderdi politikoaren sistema

Ahula da; are gehiago, ezin esan liteke Perun alderdien sistema bat dagoenik. 80ko hamarkadan, partaidetza berreskuratu egin zen; zenbait sektore instituzionalizatuago zeuden, itxura zuen alderdien sistema bat egituratzen ari zela, baina, orduan, Fujimori iritsi zen, eta “*antipolitika*” zabaldu zuen, eta, era berean, politikarien kontrako eta zerbitzu, elkarrizketa eta gatazkaren prozeduran oinarritutako politikaren kontrako gutxiespenezko sentimendu bat zabaldu zuen. Eta Fujimoriren ondoren ezin izan ziren erakunde politikoak benetan osatu, herritarrek ordezkatzeko moduan; aitzitik, “hauteskunde frankizien” sistema bat osatu da, hau da, hauteskundeetan izena eman duten pertsonak eta hauteskunde prozesuetarako frankizia horiek saltzen dituztenak. Hori guztia dela eta, ezin esan daiteke erakunde horietan joera argirik dagoenik, eta legeak aukera ematen du udalerrri eta eskualde mailako erakunde politikoak edukitzeko, eta horrek politi-

karen zatiketa handia sortu du. Muga handi bat dago deszentralizazio prozesuari dagokionez, eta Estatua oso ahul dago. Fujimoriren ondoren, eta neoliberalismoa Perun inplementatzearen ondoren, ideia bat zabaldu zen: Estatua ahalik eta guxtien sartu behar da ekonomian eta beste edozein alderdi sozialetan. Gainera, deszentralizazioak, Peruren demokratizaziorako promesa nagusiak, ez du aurrera egiten. 2002an, abian jarri zen berriro ere deszentralizazio prozesua, Eskualdeko Gobernuak sortu ziren, garrantzizko deszentralizazio mekanismoekin, eta lurraldean boterea banatzeko ideia proposatu zen; baina ez da horrela gertatu, izan ere, atzera egiten ari da. Ez dago argi tokiko eta eskualdeko gobernuek zer eskumen dituzten Gobernu nazionalaren aurrean, eta eskumen guztiak harengan biltzen ari dira berriro ere. Horren adibide garbia da Garapen eta Gizarteratze Ministerioa, hainbat gizarte-politika zentralizatzen dituena, hala nola, eskolako gosariak, eta, horrela, aurrekontua gobernu zentrolean pilatzen da berriro ere. Era horretara, Erakundearen legitimitatea galtzen ari da. Hau da, jendeak ez du politikan, justizian edo Erakundeetan sinesten. Demokraziaren itzulerarekin, ez da hori konpontzea lortu.

Gizarte-gatazkak Perun

Gatazka egoera gero eta handiagoa da egoera politiko horretan. Era horretara, Peruko herriaren defendatzailearen arabera, 2005ean 59 gatazka “orokor” izan ziren guztira, eta 2015eko urtarrilean 210 gatazka jaso ziren. Horietako batzuek nabarmen egin dute gora, hala nola, gizartearen eta ingurumenaren alorrekoak. 2015eko urtarrilean, 140 gatazka zeuden alor horretakoak, 23 Tokiko Gobernuaren gatazkekin zerikusia dutenak eta 15 lurralde mugen arazoekin zerikusia zutenak. Gizarte eta ingurumen arloko arazoaren aurrerakuntzak zerikusia du Erauzketa bidezko industrien ugalketarekin. Fujimorik, ordena demokratikoa hausteaz gainera, neoliberalismoa ezarri zuen, erauzketan, lehen sektorean eta esportazioan oinarrituta. Era horretara, erauzketarako kontzesioak ugaltu ahala, gatazkak ere ugaltu egin dira. Hona hemen aipagarrienetako batzuk:

- 2001ean, demokrazia berreskuratu zenean, Tambogranden (Piura) gatazkak egin zuen eztanda, baliabide naturalen inguruan.
- 2003-2004an, beste gatazka handi batek egin zuen eztanda Piurako eremuan. Cuzcon ere gatazka handia sortu zen. 2003. urte horretan, Esparru Hitzarmen bat lortu zen, enpresaren etekinen parte bat eskualdearen zuzeneko kudeaketara bideratzeko.

- Alan García iritsi zenean, hauteskundeetarako egindako promesak bete beharrean, “*ez berea ez besterena*” politika bideratu zuen, hau da, esaten zuen Peruren garapen ereduak ingurumenarekin kezkatuta zeudenengandik urrundu behar zuela, haiek ez baitzuten ez berena ez besterena egiten uzten. Era berean, Alan García presidenteak Merkataritza Askearen Hitzarmena izenpetu zuen Estatu Batuekin (TLC), eta, hori aurrera eramateko, legegintzako hainbat dekretu argitaratu zituen, eta “oihanaren legea” ezaguna aldarrikatu zuen, bertako komunitateek eta jatorrizko herriek beren lurraldearen gainean zuten kontrola murrizten zuen, eta, horren ondorioz, gatazka izugarria sortu zen Amazonasen, hildako eta guzti.
- Alan Garcíaren Gobernuan, halaber, gatazka bat sortu zen Arequipan, “Tía María” gatazka, mobilizazio handiekin, oso errepresio gordinarekin eta hildako ugariarekin. Hori guztia dela eta, Estatuak onartu egin zuen, azkenik, meategietako proiektu berri horrek ingurumenaren gainean izan zezakeen eraginari buruzko azterketa berrikustea eta erakunde independente bati bidaltzea. Dena dela, ohar asko egiten zitzaizkionez azterketari (138 ohar), Estatuak ez onartzea erabaki zuen, eta behin-behinean etetea erabaki zuen.
- 2010ean, hauteskundeak izan ziren, eta Ollanta Humalak irabazi zituen, gizarte-erakunde horien hurbileko diskurtso batekin; bestelako eredu bat proposatu zuen, eraldaketa handi bat eragin behar zuena, baina, haren legegaldiaren hasieran, Congako gatazka sortu zen Cajamarcako eremuan, hau da, herrialdeko urrezko meategi garrantzitsuenetako batean, eta gaur egun oraindik indarrean dirau.
- “Madre de Dios” gatazka, bestelako gatazka bat da, meatzari informalak dihardutelako, legez kanpokoak; meatzari txiki asko dira kapital handietara lotuak, Amazoniako baso eremuaren depreziazio oso handia dutenak eta inpaktu sozial handiko ondorioekin, pertsonen salerosketaren gaiari lotuak baitaude. Atzean garrantzi handiko organizazio handi bat dago, jende asko mugitzen duena, eta meatzariak *lobbietetan* antolatuta daude. Gatazka hau ere hildako askorekin amaitu zen, arazoari aurre egiteko moduagatik.
- Loretoko eremuan, gatazka bat dago petrolio-eremu horren kontzesioa dela-eta, eta ingurumenari konponbidea emateari buruzko eztabaidak hasi

dira: nork hartuko duen bere gain pasiboen ardura, zenbat diru geldituko den eremuan bertako premiei aurre egiteko, etab.

Aurretiazko kontsultaren gaia ere sortu da lurralde horretan, aurretik ere badagoelako eztabaida bat: nor den indigena eta nor ez. Planteatu da Amazoniako jatorrizko herriak bakarrik diren edo baita Sierrako eremukoak ere edo nekazarien komunitatea indigenatzat har daitekeen edo ez, eta, hortaz, galdetu egin behar zaien. Eztabaida hori guztia interpretazio mugatzaileago batekin mugatu da.

Gatazka horiei aurre egiteko erakundea lurralde eremukoa da oso; lurralde horretan bertan sortutako premiari erantzuten dio. Ez dago gatazka horiei guztiei arreta egiten dien mugimendu nazional handirik, oso agenda argi batekin. Beraz, ikusi den moduan, jarduera motari erreparatuta, meatzariak dira gatazketan indar handiena dutenak.

Zer eragin izan dute protesta horiek guztiek?

- Aukera eman dute politika publikoen mugak erakusteko edo horiek jartzeko, mugak lurraldearen antolamenduari dagokion politikan, mugak meatzaritzako kontzesioen politikan eta mugak ingurumen-eraginari buruzko azterketetan.
- Agenda-politika oso argiak daude, bai eta egin behar denari buruzko proposamenak ere, baina akademiek edo GKE-ek egiten dituzte, eta ez dira gatazkei lotutako eragileen lanaren ondorio. GKEak dira agenda programatikoa egiten dutenak.
- “*Lizentzia soziala*” deiturikoa zalantzan jartzen da. Hau da, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko azterketa orok du aurreko fase bat; herritarrek beren zalantzak agertzeko aukera emango duten tailer publikoak dira. Tía Mariako gatazka, esaterako, berriro zabaldu da, ez delako fase hori errespetatu.
- Alkate batzuk eta Eskualdeetako Presidente batzuk dira protesten buru, eta gatazka horien mugimenduan dauden eragileekin elkartasunean daude. Alabaina, erabakiak Gobernu Nazionalak hartzen ditu, eta, beraz, elkartuta badaude ere, ez dute ahalmenik gatazka prozesatuko duen bide instituzional bat egiteko.

Beste eragile edo hiri mugimendu batzuk

- Generoko mugimenduak. Indar handiz landu da emakumeen kontrako indarkeria. Bada oso kanpaina handi bat, esaten duena “gizon batek ez du bortxatzen”. Peruk indarkeria matxistaren oso maila altua du.
- Abortu terapeutikoaren aldeko kanpaina (bortxaketaren kasuan). “Utzi erabakitzen”. Gutxiespen handia izan du sektore kontserbadoreenen aldetik, abortu terapeutikoaren kontrako ekimen legegile batekin.
- Batasun zibilaren kanpaina. LGBTI mugimenduak sinadurak jaso ditu batasun zibilari babesa emateko, baina ez da proiektua onartzea lortu.
- Gazte mugimenduak.
 - “La repartija”, garrantzizko erakundeetako karguak alderdien artean banatzearen kontra. Gazteak gizarte-sareen bitartez mobilizatu ziren.
 - Gazteen lan-erregimenari buruzko mobilizazioak. 18 eta 23 urte bitartean zailtasun handiak daude lan merkatura iristeko, eta horiek lan mundura sartzeko modua izan zen eskulan merkeagoa eta babestuagoa izatea. Azkenik, gazteen protesta horiek gazteen lan-eskubideak murrizten zituen lege proiektua geldiaraztea lortu dute. Beraien helburua lortu badute ere, gazte horiek antolatuta jarraitzen dute beraiek “*las zonas*” esaten dietenetan, eta beraien agenda osatzen ari dira.
- “Hiriaren eskubidearen” aldeko mugimendu hasi berriak Liman.
 - *Sin techo* mugimendua. Erabat zatituta dago, eta batzuek lotura susmagarriak dituzte lurren trafikatzailerekin.
 - Alkateak sustatutako Lima hirirako proiektuen blokeoaren kontrako kanpaina.

Limako Udaletik, aurreko legealdian ahalegina egin zen zenbait politika aurrera eramateko, besteak beste, honako hauek:

- Parte-hartzean oinarritutako aurrekontuak. Aurrekontua bitan banatzea lortu zen; izan ere, Lima oso handia da, eta Limako Udalak probintzia mailako eskumenak ditu, eskumenak ditu Cercado barrutian, bai eta Eskualdeko Gobernuan ere; beraz, denerako eskumena duela dirudienez baina ez duenez ezer

egiten, aurrekontu bat prestatu zen Limako Cercadoko barrutirako bakarrik. Gainera, 22 milioitik 80 milioira igo da aurrekontua.

- Garapen Kontzentratuako Plana egin zen.
- CODEL sortu zen, Limako Cercadoko Toki Garapenerako Kontseilua.
- “Lima Informa” mekanismoa sortu da kontu eskea deszentralizatzeko, herritarren batzar deszentralizatuak antolatuz, Limako udalerriak zer egiten zuen azaltzeko.
- Zenbait politika adosten ahalegindu zen. Esate baterako, saiatu zen hiria berritzeko politika bat egiten, auzokoak hiriaren erdian edukitzeko eta etxebizitza sozialen politika bideratzeko.

Gobernu parte-hartzaileagoa izan bazen ere, ezeztatzeko prozesu bat eduki zuen, besteak beste, ez zuelako komunikazio politika on bat eduki, parte-hartzailea izateak ez duelako eraginkor izatea esan nahi, eta Castañeda alkatea ustelkeriagatik auzietan nahastuta egon zelako.

Posible al da gizarte-mugimenduei balioko dieten parte-hartze moduak imajinatzea?

Bai, posible da, eta beharrezkoa ere bai, egoera gris horiek gorabehera. Kontuan hartu behar da nork erabakitzen duen eta nola antolatzen den partaidetza. Hori lortzeko zenbait erreferentzia:

- Dena igaro behar da agenda nazionaletatik; nahiz eta harreman tirabiratsua egon tokikoaren eta nazionalaren artean, arazo hori konpontzen saiatu behar da.
- Erakunde politikorik gabe ezin da partaidetzarik egin; ez badago prozesuari utsiko dion eragile politikorik, ez du ezertarako balio; bertan egon behar dute.
- Sendotasuna behar da gizarte-eragileetan, esate baterako, ez aldatzeko bozeramailea txitean-pitean, edo pertsonak benetako gizarte-mugimendua ez ordezkatzea.
- Agintariek borondate politikoa eduki behar dute; ez du ezertarako balio besterik gabe legeak egoteak.

- Herritar aktiboak behar dira, demokraziaz eta gobernatzeaz arduratuta, hau da, herritar masa prestatua behar da, eta kontzientziarekin.
- Komunikazio gaitasuna, komunikabideek egin ohi dituzten blokeoak gorabehera.

*Zuk parte hartzen duzu
Berak parte hartzen du
Zuek parte hartzen duzue
Baina oraindik... beraiek erabakitzen dute*
(Eduardo Ballón)